

Ordizian, 2015eko maiatzaren 21a UDALBATZARRAK Aparteko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTAN IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea

IDAZKARIA:

Iker Rocandio Etxeberria jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.



BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

.- Zaharren egoitzan obrak: kreditu aldaketa eta konpromiso gastuen onarpena.

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 18:24 etan

AMAIERA: 18:25etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- Zaharren egoitzan obrak: kreditu aldaketa eta konpromiso gastuen onarpena.

Proposamena

Zaharren Egoitzako bergaitze obrak ezinbestekoak dira Kabia foru erakundearen menpe uzteko haren kudeaketa.

Foru Aldundiak jakinarazi digu prest dagoela obra horiek % 75ean finantziatzeko, horretarako 769.834 euro jarriaz.

Obra martxan jartzeko esleipen-prozesua burutu beharko da. Aurreikusten da obrak aurten hastea, 2016. urtean amaitzeko. Obra bi urtetan zehar luzatzen denean legeak agintzen du, obra hasi behar den urtean kreditua egoteaz gain, bigarren urterako konpromiso kreditua onartzea.

2015eko Aurrekontuan krediturik ez dago helburu horretarako, baina kontuan izanda obra honen garrantzia, posible ikusten de beste kreditu batzuk kentzea edo gutxitzea.

Bidebatez, badaude beste gastu batzuk kreditu beharrean daudenak: Dumper baten erosketa eta marquesina bat jartzea Arana kaian.

Horiek guztiak kontuan hartuta, Udalbatzarrerako gaiak aztertzen dituen Informazio Batzordeari proposatzen diot aldeko irizpena emateko, Udalbatzak akordio hau har dezan:

AKORDIOA

1.- Kreditu transferentzien espedientea onartzea, segidako taularen zehaztapenarekin.

KREDITU EN IGOERA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
624.01.163.00	Dumper baten erosketa	2.132,67
622.01.231.90	Zaharren egoitzaren bergaitze lanak	128.305,67
623.02.442.00	Markesina bat Arana kalean	1.452,00
	GUZTIRA	131.890,34



KREDITUEN MURRIZKETA

PARTIDA	IZENA	KOPURUA
601.02.153.40	Obra txikiak	31.890,74
622.01.332.10	Lokalen erosketak	100.000
	GUZTIRA	131.890,34

2.- 128.305,67 euroko konpromiso kreditu bat onartzea 2016rako, 622.01.231.90 partidan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Ez da izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (BILDU 6)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 5 (EAJ 4, PSE-EE (PSOE)1)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

